



Urte horietan gertaturikoa ondo argitzea zaila da guretzat. **Hobeto esateko, ezinezkoa.**

*...hobe esateko...

Badirudi autore zaharretan maiztasun handiagokoa dela "**hobeto esateko**" forma "**hobeto esan**" baino.
Ikus *Euskal Klasikoen Corpusa* (EKC).



Badago tarteko fase bat, **edo, hobeki esan, konposatu bat**, espinela izenekoa, $MgAl_2O_4$ formula kimikoa duena.

*...hobe esan...



● Landa-eskolak, **edo, hobeto esanda**,
landa-eremuko eskolak baditu
beste desabantaila asko.

*...hobe esanda...

Kontuan har:

NOLAKO(A)?	NOLA?
ON(A)	ONGI/ONDO
HOBE(A)	HOBEKI/HOBETO

Beraz:

- Hau **hobeki/hobeto** esanda dago (***hobe esanda**)
- Hobeki/Hobeto** esan (***hobe esan**)
- ...



- (edo) hobeto esateko
- (edo) hobeki esan
- (edo) hobeto esanda

Diskutso-markatzaileak dira horiek denak, lehen hiru diapositibetako adibideetan.

Aurretik emandako enuntziatu bat edo enuntziatu baten segmentua zuzentzeko, hobetzeko edo zehazteko erabiltzen ditu halakoak hiztunak.

Hartara, lehen segmentu horren orde, beste bat sartzen du, egokiagoa, zuzenagoa edo zehatzagoa.

- Homeroren interpretazio teistan, **edo, hobeto esateko**, politeistan, jainkoen nahiaren emaitza da historia.

Karl R. Popper, *Gizarte irekia I*, 2007. Euskaratzailea: Josu Zabaleta



Hona era horretako diskurtso-markatzaile zuzentzaile zenbait, literatura-tradizioan jasoak:

- | | |
|---------------------|------------------------------|
| •HOBETO ESAN | •HOBEKI ESAN/ERRAN |
| •HOBETO ESANA | •HOBEKI ESAN(/ERRAN) DEZADAN |
| •HOBETO ESANDA | •HOBEKI DERRADAN |
| •HOBETO ESANIK | •HOBEKI ESANIK |
| •HOBETO ESATEKO | •HOBEKI ESATEKO/ERRATEKO |
| •HOBETO ESATEAGATIK | •HOBEKI ESATEAGATIK |
| •HOBETO ESATEARREN | •HOBEKI ESATERA/ERRATERA |
| •... | •... |



Adberbio soilok ere balio dute aurretik adierazitako zerbait zuzendu, zehaztu edo hobetzeko:

- (edo) HOBEBI
- (edo) HOBETO

- Uste nuen lasterka ibiliz, beste zerbaitetan pentsatuko nuela, **edo, hobeki**, burua erabat hustuko zitzaidala.

Daniel Landart, *Anaiaren azken hitza*, 1999

- Banekien: ahalik eta lasterren zauria ebaki egin behar da, **edo, hobeto**, kauterizatu.

Max Frisch, *Homo Faber*, 2001. Euskaratzailea: Joxe Austin Arrieta

Jakingarri gehiago hemen:



Garcia, Julio (2014). (edo) hobeto. In Xabier Alberdi (argit.), *Birformulazioa eta birformulatzaileak euskaraz*, 638.-649., UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Garcia, Julio; Iruskieta, Mikel (2014). Hobeto esanda. In Xabier Alberdi (argit.), *Birformulazioa eta birformulatzaileak euskaraz*, 657.-672., UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Fitxa honetako adibideen iturriak:

- EHUskaratuak corpora
- EKC corpora (*Euskal klasikoen corpora*)
- EPG corpora (*Ereduzko prosa gaur*)
- OEH (*Orotariko euskal hiztegia*)